



Esp. kodea: 2024JGAZ0007

Gaia: AISIALDI ETA KIROL PROGRAMETAN  
HAURREN PARTE HARTZEA SUSTATZEKO  
DIRULAGUNTZAK

Hasiera eguna: 2024/02/23

## ZIURTAGIRIA

NIK, Ana Belen Hidalgo Corral andrea, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIAK,

ZIURTATZEN DUT:

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Alkatezak emandako eskurantzaren eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

**“Aisialdi eta kirol programetan haurren parte hartzea sustatzeko dirulaguntzak deitzea (2024JGAZ0007)**

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Belaunaldien Arteko batzordeburuaren proposamen hau onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Datorren astean udaleku programetan izena emateko epea irekiko denez, komenigarritzat jo da dirulaguntza lerro honen deialdia aurreratzea, ezarritako baldintzak betetzen dituzten familiek beren seme-alabak udaleku programa horietan inskribatu ahal izateko. Hala egin ezean, Udalaren dirulaguntzen deialdi orokorra argitaratu arte itxaronez gero, baliteke ordurako programa horietan izena emateko epea itxita egotea edo plazak beteta egotea; beraz, laguntza horiek ez lukete beteko aurreikusitako helburua.

Laguntza hauek bakarrik ematen dira udaleku programa zehatz batzuetarako: irabazi asmorik ez duten herriko elkarteek antolatutako udaleku programetarako, hain zuzen.

2024ko udal aurrekontuetan jasota dago laguntza horiek emateko kontusaila.

Hori dela eta, aurtengo udalekuetan herriko haurrek era berdintsuagoan parte hartu ahal izateko, Batzordeburu honek hauxe proposatzen dio Tokiko Gobernu Batzordeari:

**LEHENENGO.-** Aisialdi eta kirol programetan haurren parte hartzea sustatzeko dirulaguntzen oinarriak onartzea.

**BIGARREN.-** Deialdiaren iragarkia GAOn argitaratzea.”

<b>Kodea</b>	H24/02133	<b>Udala</b>	Arrasate/Mondragón
<b>Data</b>	2024/ots./29	<b>CUDO</b>	000.0055.AAA1AFJV.K.16g6
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1AFJV.K.16g6">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1AFJV.K.16g6</a>		
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			





Esp. kodea: 2024JGAZ0007

**Gaia:** AISIALDI ETA KIROL PROGRAMETAN  
HAURREN PARTE HARTZEA SUSTATZEKO  
DIRULAGUNTZAK

**Hasiera eguna:** 2024/02/23

Eta hala jasota geratzeko eta ondorio egokiak sortzeko, ziuurtagiri hau egin eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2024ko otsailaren 29an.

O.E.

Alkatea

<b>Kodea</b>	H24/02133	<b>Udala</b>	Arrasate/Mondragón
<b>Data</b>	2024/ots./29	<b>CUDO</b>	000.0055.AAA1AFJV.K.16g6
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1AFJVK.16g6">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1AFJVK.16g6</a>		
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			

